

## ANALISIA



## Badago zertaz lotsatu eta izutu



Mikel Asurmendi  
@masurmendi

ETAk eragindako kaltea onartu du. ETAren agiria bi testutan heldu da. Batean, “eragindako kalteari buruzko adierazpena” helarazi dio Euskal Herriari. Bigarrena adierazpenari buruzko argibide oharra da. ETAk egindako mina onartzea ez da harriztekoa, areago, bera sostengatu izan duten herritarrentzat –ETAk Euskal Herria deitzen duenentzat– lasaigarria da. Edonola ere, adierazpenari buruzko “argibide oharra” idatzi behar izateak gatazka ebazteko egun lantzen ari den moduak ez du normalizazio politikoa bermatuko.

Bi arrazoik egin dute posible ETAren agiria: bat, politikoki ez duela deus galtzerik ez irabazterik ere. Ez ETAk, ez politikoki historikoki berarengandik gertuen dagoen aukera politikoa. Bi, agiri horren bitartez, euskal preso politikoen etorkizunak hobera egin dezakeela. Hala ere, bigarren hau ez dago bermatua. Areago, ETA desmobilizatuko da, presoak aterako dira kalera, baina inork ez du bermatzen etorkizunean preso politikoa, biktimak, borroka armatua edo “terrorismoa” izanen ez denik.

ETAren agiriak ez du dena esaten, ezinezkoa baita dena esatea. Erran nahi baitut, 1958ko, 1968ko, 1978ko... ETA, egungo ETA al da? Zenbat ETA izan dira sei hamarkadatan? Egungo ETAk hitz egin al du ETA guztietan aritu direnen izenean?

Gehiago esateko eta partekatzen haste-ko, agiria idatzi dutenek ETAren beraren 60 urteko kidegoekin hasi behar dute bizitakoa partekatzen, bizirik daudenekin behintzat. Kidego horietan suerte guztietako herritarrak daude, mota guztietako biktimak, torturatuak, estatuek errepresaliatuak nahiz ETAk berak jazarriak, baztertuak edota hitz batean “damutuak”.

ETAk eragindako kaltea onartzea ez al da egindakoaz “damutzea”?

ETAk Euskal Herria deitzen duenak hasi lezake orduan gertatutakoa digeritzen. Eta guztia digerituta ere, hori egiteak ez du legea ezartzeko biolentziaren monopolioa dutenek “eurek eragindako mina eta inposizioa” aitortzea bermatuko. Espainiako eta Frantziako estatuek –ez berauek sostengatzen dituzten herritarrek ez agintariek– ez dute egindako minez eta kalteez ez “damu” ez dolurik aitortu beharrik. Euren legeek salbuetsita daude.

ETAk Euskal Herria deitzen duen horrek badu zertaz lotsatu, eta zertaz beldurtu ere. Ostera, zertan daude Euskal Herria horretaz harago eta honago daudekeen Euskal Herriak? Ba al dago Euskal Herria izaterik Espainia eta Frantzia izanda, ba al dago bi estatu hauek –ondoan– izan gabe?

Ba al dago Euskal Herria izaterik –ETAk Euskal Herria deitzen duen hori– ETA desegin edo amaitu ostan? ■

## EKONOMIAREN TALAIAN

## Bat eginik pentsionistak desmobilizatzeke



Juan Mari Arregi

PPren Gobernuak fronte asko dauzka irekita eta galera handia izan dezake bere boto-emaileen artean. Pentsionisten sektorea –botoak lortzeko garrantzitsuenetakoa– muturrerantz zihoakion, Espainiako Estatuan mobilizazio gero eta handiagoekin. Eta mobilizazio horien buru Hego Euskal Herriko pentsionistak jarri dira, hortik boto asko lortzen dituen EAJri ere eraginez.

PPren eta EAJren interesak batu egin dira Estatuko Aurrekontu Orokorrek salbatzeko, pentsionistak hauteskunde-merkantzia balira bezala erabilia. Horretarako, lehen ezinezkoa omen zena dirurik ez zegoelako, orain posible da, bi alderdientzat hauteskondeei begira onuragarria delako, eta KPI-aren hazkundeari loturiko %1,5eko igoera adostu dute aurten-gorako eta hurrengo urterako. Lortu dute, era berean, pentsionisten arteko batasuna haustea, batzuentzako agian nahikoa izango delako igoera, mobilizazioen ondorioz lortua gainera. Beste askok ordea, batez ere Hego Euskal Herrian, ez dute hori uste.

EAJri oroitarazi behar zaio igoera horrek hilean batez beste 10 euro gehiago ekar dezakeela soilik; 700 eurotik behera kobratzen duten 247.000 euskal pentsionistentzat oso gutxi da. Bertoko pentsionisten plataformek aldarrikatu dute pentsioak 1.080 euro arte osatzea, orain hori erabaki izan balitz, orduan bai sinesgarria litzateke.

Estatuko aurrekontuak –itxura guztien arabera EAJren babesa izango dutenak–, antisozialak, militaristak eta birzentralizatzaileak dira. Jeltzaleak Gernikako Estatutua bortxatzen duen gobernu ustel baten ondoan jarri dira. Benetan fidatu daitezke duela dozenaka urte sinatu baina oraindik eskumenak transferitu ez dituen gobernu batez? Zeinek bermatzen du akordioa beteko dutela?